

zaharregia, txikiegia agian:

kirmen uribe

mikel urdangarin

bingen mendizabal

rafa rueda

mikel valverde

- 
- emakumeak herria eraikitzen
 - literatura: jon arretxe. jabi alonso
 - historia: koldo ortiz de ginea
 - kultur emanaldiak: irudipuinak.
 - irakurle kluba: patxi zubizarreta

olabide ikastola. 40 urte

komikigintza. aritz pilotaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



2AN. ANTZERKIA:
JUANLU ESCUDERO.
"TRAINSPOTTING"

4AN. BERTSO SAIOA:
JON MAIA, IGOR ELORTZA ETA
UNAI ITURRIAGA.
"HERRIYA SERBIDUTEN"

5AN. MUSIKA:
ONCE VARAS.
FLAMENKO-PARTY-SOUND

PARRAL

ABENDUAN

8. URTEURRENA

EKITALDI GUZTIAK 20:30ETAN.



9AN. KONTZERTUA: CONGROOVE (RAUL ROMO+SAY CHIN, FUNKY-GROOVE)

16AN. ANTZERKIA: PANICO ESCENICO: "SOLAS"

23AN. KARAOKE JAIA. BEHIN BAZEN ABBA ETA GERO KORTATU

30EAN. IRUDIPUINAK: MATTIN ETA IXABEL AGIRRESAROBÉ
(GEU ELKARTEAK ANTOLATUA ETA KULTUR ERROTAREN EGITARAUAREN BARRUAN)



ahorik aho:

ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN:
kirmen uribe, mikel urdangarin, bingen mendizabal, rafa rueda eta Mikel Valverde

7-10.
orr.



11-14.
orr.

KOMIKIGINTZA. ARITZ PILOTARIA:
pello gutierrez, daniel redondo eta iban astondoa

gaika:



16-19.
orr.

OLABIDE IKASTOLA.
40 URTE



20-21.
orr.

EMAKUMEAK HERRIA ERAIKITZEN. Sahara, Guatemala, El Salvador, Mexiko

GAINERA...

- **Han-hemenka** (4-6. orr):
- **iritzian: NORA URIBEETXEBERRIA**, Arangoiti Ikastolako zuzendaria: Nafarroa Oinez / **LAIA ALDIZKARIA**, Añanako aldizkaria.
- **kaleak dio:** Durangoko azoka.
- **araba bixotzian** (abarrots).

• KULTURASIALDIARI SO (23-35. orr):

- **agenda** (23)
- **idazleen gupila II** (*istorio berria) - **JON ARRETXE** (24-25)
- **historia zertzeladak** - **KOLDO ORTIZ DE GINEA**: 'Ukatutako konkista' (26-27)
- **arte txokoa:** **JAVI ALONSO**, rapsoda (28-29)
- **bidaia:** 'MARIARI GUTUNA' (30)
- **errezeta** eta **denbora-pasa** (31)
- **geu-ren gunea:** geu-ren eskaintza eta gomendioa. **KULTUR ERROTA:** Irudipuinak; ixabel agirresarobe + mattin. **IRAKURLE KLUBA** (32-33)
- **komikia** (iñigo sarasola) (34)
- **artista berrien txokoa:** arte eta lanbide eskola (35)

Azala ...



Azaleko irudia: ©Mikel Valverde. Zaharregia, txikiegia agian. 2003



GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkariako batzordea:	josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	edurne begiristain, josune verez de mendizabal
Argazkiak:	edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:	estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:	estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak:	edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa:	patirke sanz eta david alvez
logoa:	io grafia
komikia:	iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:	nora uribeetxeberría, laia aldizkaria, maite lekue, saioa fdz. de arangiz, abarrots, jon arretxe, koldo ortiz de ginea, ruben argote, xabier errasti, arte eta lanbide eskola eta diocesanas-mendizorrotzak ostararitza eskola.
Publizitatea eta Banaketa:	edurne begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak:	maite lekue
Sustapen-harpidetza saila:	edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500
	LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Zaharregia, txikiegia agian

"Kantak ikasten diren bezala poemak ere buruz ikastea lortu nahi dugu, barneratuz eta zabalduz" (Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe)

"Bidaian sorturiko hau berezia izan da eta arlo ezberdinetan aritzen garenok bildu gaitu" (Bingen Mendizabal)

"Niretzat proiektu hau sentsibiltate berdin-antzekoak dituzten lagun arteko lana da. Ardatz nagusia Euskara bera da, kanta baten hasieran aipatzen den bezala "Munduari begiratzeko modu bat" (Rafa Rueda)

"Produktua banaezina da (letrak, irudiak, azala, musika...), keinu asko dira, ulertze bat da, giro bat... Oso bat da" (Mikel Valverde)



NORA URIBEETXEBERRIA

Arangoiti ikastolako zuzendaria

HARRIZ HERRI... EUTSI AMETSARI!

Harriz, Herri lelopean bildu nahi izan du Arangoiti ikastolak aurtengo Nafarroa Oinez-en mezua.

Harria, geure paisaia deskribatzen duen elementua da, gai trinkoa, denborari aurre egiten diona, gogorra.

Herria, geure jendea, gizartea, gai malgua, aldakorra, eragilea.

Irunberrin berriz, harria eta herriaren eskutik, Nafarroako ikastola txikienetako bat aurkitu dezakegu, Arangoiti ikastola.

Idea hau genuen abiapuntu eta gaur, inoiz baino gehiago, ideia honek gaurkotasuna du, bertan gertatutakoaren adierazgarri baita. Ikastolaren historia harriz eta herriz egin izan badugu urte luzeetan zehar, berriro ere, elkartasunaren harri txiki eta herri handiek bultzatu dute gure ikastola.


Arangoiti ikastetxe alegala da, kontzertatu gabekoa eta eskualde "ez euskaldunean" dago kokaturik, Nafarroako gobernuak erabakitako mapa linguistiko horren azken bazterrean, horrek dakarren ondorio latzekin.

Gaur egun, gela gehienak gurea ez den eraikuntza zahar batean daude, beste gela bat ludotekarako erabilitako eraikuntza ezberdin batean: baldintza egokirik ez, espazio falta, hotza, itoginak...

Hasieratik guraso eta irakasleen lan eta borondateak estali ditu hainbat eta hainbat gabezia, nola edo hala aurrera egiteko gai izan garelarik. Horregatik **Nafarroa Oinez 2003** honen antolaketak aukera paregabea suposatu behar zuen behin betiko normalizaziorako bideak jorratzeko, ikastola eraikitzeke, geroa ziurtatzeko.

Ilusioz beterik ekin genion lanari. Geure neurrian baina duintasunez egin nahi genituen gauzak; helburu ekonomikoa eta ikastola berri bat eraikitzea beharrezkoa zela ahaztu gabe baina, era berean, euskal kultura eta gure proiektua indartzeko aukera probestuz.

Irunberri ez ezik, inguruko bailarak ere inplikatu ziren



amets honetan eta haien elkartasunari esker bertako errealitatearen adierazle izango ziren hamaika ekitaldi antolatu genituen urtean zehar. Gure eskualdean denboran zehar apalduz eta isilduz dihoan errealitate baten adierazgarri izan nahian, Oinez egunerako, hainbat ekitaldi antolatuz.

Nafarroako ipar ekialdean euskaraz bizitzeko gogo eta eskubideen aldarrikapenaren oihartzuna izan

nahi zuen 2003ko Nafarroako ikastolen festa.

Haize eta euri zaparrada beldurgarri batek zapuztu zituen gure ametsak.

Luze idatz zitekeen bizi izan genuenari buruz baina hitz gutxi batzuk adierazgarri izan daitezke: ezintasuna, desilusia, pena, desesperazioa.

Horien guztien artetik, hala ere, indar handiz, beste sentimendu zoragarri bat sortu zen: elkartasuna. Herriak, gure herri kementsuak jakin zuen zer beharra genuen, Harria, harri trinkoa moldatzeko eta lantzeko: Ikastola bihurtzeko.

Denbora behar izango dugu guzti honen esanahia behar den bezala barneratzeko. Urriaren 19aren ondotik sortutako elkartasun zaparrada sinestezina, ikaragarria izan da. Gizarteak gauza baliotsua erakutsi digu, desberdintasunak alde batera utziz eta berdintasunean batzeko gai izanik indar izugarria daukagula euskaldunok.

Euskararen inguruan, ikastola txiki baten oinarritzko beharren inguruan, proiektu eta ametsen inguruan Euskal Herriko oparirik handiena jaso dugu Irunberrin eta esker onak adierazi nahi nituzke lerro hauen bitartez, honekin nahikoa ez dela jakin arren. **Elkartasunaren ikastola eraikiko dugu** Nafarroako txoko galdu honetan eta gure ametsari eutsiko diogu. Gure ikastola euskaldun guztion ikastola izango da eta gure atek beti zabalik izango dituzuela jakin ezazue.

Mila esker, bihotzez.

LAIA

AÑANAKo aldizkaria

Laia Eskuetan Kultura Elkartea gara, Añana Eskualdean aldizkari bakarra editatzen duena. Hainbeste eman duen herrialde honetan, gogora dezagun, adibidez, gatzak historikoki izan duen erabateko garrantzia, eskualde honek, oraindik ere, gure bizitzan eta gure bizimoduan garrantzia du.

Aldizkari hau eskualde honetan bizitzaren arlo guztiak argitaratzeko helburuarekin jaio da. Jakin badakigu zer suposatzen duen horrelako egitasmoak, ez bakarrik sorkuntzaren aldetik baizik eta ekonomiaren aldetik ere. Hau da, elkartu egin behar dugu sormenarako gogo -bizitzaren

gatza- ezinbestekoa den euskarriarekin -ogia- esku artean dugun egitasmo hau aurrera eramateko.

Dena den, gatzak eman eta gaur egun ere ematen jarraitzen duenak orain ogia behar du.

Horregatik zugana zuzentzen gara argitalpen honi 30 euroko diru laguntza eman diezaiozun. Uste baldin baduzu egitasmo hau interesgarria dela, guk uste dugun moduan, berarekin parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Zure laguntza behar-beharrezkoa da behin eskualde honetan hitz egin zen euskara berreskuratzeko.

Añana Eskualdeak eskertuko dizu.



LAIA, AÑANAKO ALDIZKARIA

euskaraz & gazteleraz

SUSTATZAILEAK DIRA SOSTENGU NAGUSIA

**Kolabora ezazu gure aldizkariarekin.
LAIAk behar zaitu!**

URTEKO KUOTA: 30 EURO (6 ale)

Tfn.: 679 81 22 48 - Laiak@terra.es

Helbidea: LAIA ALDIZKARIA

Sendadiano, 15 - 01437

KUARTANGO (ARABA)

SUSTATZAILETZA-TXARTELA

IZEN-ABIZENAK: _____

HERRIA: _____

KODEA: _____

HELBIDEA: _____

HERRIALDEA: _____

TFNOA.: _____

BANKU EDO KUTXA: _____

LIBRETAREN ZK. (20 dijitoak): _____

JABEAREN SINADURA

Euskal kultura maite dutenek hitzordu berria izango dute aurten ere Durangoko azokan, abenduaren 4tik 8ra bitartean. Bertan euskarazko literatur eta musika arloan agertu berri diren lan guztiak ikusteko eta eskuratzeko aukera izango dute.

DURANGOKO AZOKA

1.- Durangoko azokara joan ohi zara?

2.- Aurten joateko asmorik?

3.- Zein liburu edo disko eskuratu nahi zenuke?



Mª Angeles Otxandio Ania, erretiratua

- 1) Bai, orain dela urte asko egon nintzen eta asko gustatu zitzaidan.
- 2) Bai, gustatuko litzaideke.
- 3) Tomas San Miguel musikariaren azken lana eskuratu nahi nuke.



Koldo Muguruza, ikaslea

- 1) Ez, ez dut inoiz azokaren berri izan.
- 2) Ez dakit, baliteke.
- 3) Joaten banaiz eta gustuko ditudan musika taldeek lan berririk ateratzen badute erosiko dut baten bat, adibidez, heavy taldeen disko berriak.

Berta Ruiz de Infante, irudi eta soinu teknikaria

- 1) Bai, iaz egon nintzen eta orain dela hainbat urte ere hara hurbildu nintzen.
- 2) Lan egiten ez badut joango naiz.
- 3) Ez dut oraindik ezer pentsatu, beraz, han ikusten dudaren arabera zeozer erosiko dut ala ez.



Pello Aranzabal, irakaslea

- 1) Bai joan izan naiz, baina azken aldi honetan ez naiz hurbildu. Ez dut atsegin jende ugari sunagatik.
- 2) Ez. Bultzada eta bultzada artean ezinezkoa da gauzak ongi ikustea.
- 3) Adi egoten naiz agertuko diren liburu eta diskoei eta behar dudaren bila liburu-dendara joaten naiz.



Araba bixotzian

GERTATUKO OTE DA?

DENOK BATERA, DENA ERAMATERA!



"ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN"

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta
Mikel Valverderen apustu berria

ESTREINA GASTEIZEN IZANGO DA

abenduaren 11n, Principal antzokian, 20.30etan, Geu elkarte & Gauekoak-en eskutik



© Mikel Valverde
Zaharregia, txikiegia agian, 2003



artxibo

New York-en arima eta
Gasteizen hazia du Kirmen
Uribe, Mikel Urdangarinek,
Bingen Mendizabalek, Rafa

Ruedak eta Mikel Valverdek osatu boskoteak kaleratu berri duen
"Zaharregia, txikiegia agian" disko-liburua. Mikel Valderderen
marrazkiez eta Natxo Rodriguez eta Ibon Saez de Olazagoitia gazteen ikus-
entzunezko irudiez lagunduta egitasmo berritzailea estreinakoz
aurkeztuko du Geu Elkarreak (Gauekoak-en laguntzarekin) abenduaren
11n Principal antzokian. Ilusioz beterik eta egindakoaz asetuta
dakarkigute euren, egileen, nortasuna biltzen duen lan koloretsu eta polit
hau. "Jendea gosez gelditzen bada emanaldian, dudarik ez gehiago emango
diegula", diote Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinek.

SARREREN ERRESERBA. "Zaharregia, txikiegia agian" ikuskizunerako sarrerak **Geu Elkartera** deituta
erreserba daitezke. Bazkide / harpidedun bakoitzeko 2 gehienez. Deitu agortu baino lehen. Epea: **abenduak 5.**
Prezioa: **6 euro** (besaulki-patioan). Sarrerak Principal-en bertan jaso daitezke abenduaren 5etik aurrera.

MIKEL URDANGARIN ETA KIRMEN URIBERekin mintzo



• Proiektu hau sortu zenetik hilabeteak pasa dira. New York-eko proposamena egia bihurtzeaz gain, "Zaharregia, txikiegia agian" liburu-disko bilakatu da. Nola bururatu zitzaizuen lan berri hau ekoiztea?

New York-en hazi zen hau dena, eta arima eta usaina berdinak izan arren oraingo honetan gauzatu duguna edukiz, kantetan nahiz poesietan, oso desberdina da. Bostok bildu ginen hara joateko eta han izan zen lehendabiziko emanaldia. Hasiera batean emanaldiari jarraipenik ematea ez genuen pentsatu, hangoa topaketa puntuala besterik ez zelakoan. Baina nahiz eta oso asetuta bueltatu New York-etik, aldi berean gosez heldu ginen hona. Merezki al du hau guztia garbatzea?, galdetu genion geure buruari, eta modu naturalean ateratzen dena. Tontotuta edo lokartuta daukagun kontzientzia beraz, han, New York-en piztu zen.

• Martxoko bidaia hartan "Bitartean heldu eskutik" Kirmenen liburuko poemak izan ziren irakurritakoak. Produktu berri hau parekagarria al da poema liburu horri?

Ez. "Bitartean heldu eskutik" liburutik hona salto bat dago poemak egiteko orduan. Hau bigarren poema-liburua izango litzateke. Lehendabiziko poemak zuri-beltzezko pelikularekin daude eginak eta oraingoak, berriez, koloreetan eginak dira. Azken finean, beste proiektu bat da.

• New Yorkera bidaiatzeko gonbita Kirmeni luzatu zitzaion hasiera batean, ondoren aldiz, proposamena are gehiago aberastu zenuten Mikel, Rafa eta Bingenen ekarpen musikarekin, ahortzi barik Mikel Valverde ere bertaratu zela. Hortaz, lagunaren artean bidaiatzeko aukera edota Euskal Herrian egin daitezkeen ekintzak zabaltzeko parada izan zen hura? Biak akaso?

Kirmen: Dena batera. Alde batetik, ez nuen bakarrik joan nahi eta gainera, hasieratik ikusi genuen aukera bat guztiok joateko. Bestetik, ohiko poesia emanaldia ez genuen egin nahi, hau da, beste espiritu bat agertu nahi genuen, ez irakurketa soil bat egitea, alegia. Mikel eta biok bat gatoz gauza askotan. Batetik, lagunak garelako eta bestetik, lan egiteko mementoan

Udaberria
euskaltegia

• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
- Helduentzat • Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat
Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta

Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

ere gauza komun asko ditugulako. Ingurura Rafa eta Bingen ere etorri ziren. Hortaz, han izan genuen arrakasta uste dugu etorri zela ez poemek esaten zutenagatik, baizik eta esateko moduagatik. Azaldu nahi izan genuen hemen nola egiten ditugun gauzak, hots, idazteko, musika egiteko eta bizitzeko modu bat.

•Hortaz, oso aukera egokia New York-eko esperiantzarena?

Bai, noski. Oso sinestuta eraman genuen eta gainera hiri hori azken finean abangoardia da zentzu askotan. Oso indartuta bueltatu ginen, nolabait pentsatu genuen hor egin genuena munduko beste edozein tokitan egin genezakeela. Erabakiak hartzeko gogoa piztu zen eta gureganako konfiantza ere izan genuen ordutik aurrera.

•Nolakoa da disko-liburua?

Hitzak, musika eta irudiak uztartzen dituen euskarria da. Liburuak dauka bere baitan diskoa. Bertan argitaratzen diren kanten eta poemen hitzak hiru hizkuntzatan agertzen dira. Modu honen bidez, adierazi nahi izan dugu han ere hiruretan aritu ginela, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Mikel Valverderen ekarpena ere badago liburuan, 40 bat ilustrazio egin baititu. Guztira liburuak 150 orrialde



inguru ditu eta gozagarria da. Marrazkiek erritmoa ematen diote kontaktari. Hortaz, diskoa liburuaren osagarri eta independentea da aldi berean. Gure bigarren erronka, berriz, poemak kantuak bezala tratatzea izan da. Poema aspergarrietatik alde egitea eta beste dimentsio bat ematea bilatu dugu, nola egin poema bat entzungai mila aldiz. Hori izan da gure erronka eta buelta ugari eman ondoren oso pozik geratu gara. Kantak ikasten diren moduan poemak ere buruz ikastea lortu nahi dugu, barneratuz eta zabalduz. Oso modu musikalean daude eginak, paisajistikoak eta kolore askodunak direla.

KIRMEN URIBE

Kirmen Uribe New York-en izan da berriro ere urrian, oraingo honetan bakarrik. "Lehengoa baina bisita teknikoagoa izan da oraingo honetakoa", dio Ondarrukoak. Bertan Euskal poesiaran inguruko Udazkeneko Festibalean izan zen batetik, eta bestetik, Unibertsitatean poesiaz eta itzulpengintzaz aritu zen. Gaztearen esanetan, "New York-eko gizartea martxoan baino askoz ere biziagoa ikusi dut. Orduan impasse horretan zeuden, nahasiagoak agian, orain oster, konturatu dira gerra akatsa izan zela". Bere aburuz, "badira bertako gizartean bi alde oso kontrakoak. Batetik, axolagabekeria bizi den jendea eta bestetik, kezka dituztenak".

MultiOpticasen benetako Multieskaintzak

MULTIOFERTAS

MULTIOPTICAS

bonardi aire
ARMAZOIAK

49€ baino ez

ZERBITZU OPTIKOTAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Zuriaren plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza honek 03/09/15etik 08/10/31ra arte du balioa

Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailaz

► MIKEL VALVERDE, irudigilea & diseinuaren arduraduna

Mikelek bi ideia ditu garbi egitasmoaren inguruan: laguntasuna eta naturaltasuna, laguntasunean eta era naturalean sortutakoa dela. "Martxoko New York-erako bidaia hura, printzipioz Kirmen Uriberen boloak izango zirenen aitzakiaz, abiapuntua izan zen. Horrek guztiak, adiskidetasun batean oinarrituta, forma hartuko du era natural batean. Hortik, laguntasunetik, sortuko da talde poetikoa, 5 lagunek osatua, ni eszenatokiaren bestaldean banago ere. Bertan nik argazkiak eta bozetoak egin nituen, baina oraindik jakin gabe etorkizuneko ezertarako zenik. Nik unea bizi izan nahi izan nuen".

Mikelen hitzetan, "prozesu honetan oso garrantzizkoa izan da bakoitzak ibilbide profesional zehatz bat dugula jadanik, baita une profesional zehatz batean gaudela. Hau 10 urte lehenago ez zatekeen gertatuko". Kointzidentzia asko dira eta suertatzen zailak oso, bere aburuz: "hau zaila da gertatzea: une profesional zehatzak, antzeko ikuspegi artistikoa, gauzak ikusteko modua, harrokeria baztertuz egunero batak besteengandik ikasteko gogoia, norbera bere ofizioan baina elkarrekin aritzea, Gaztelupeko Hotsak bezalako diskoetxea...". Lagun irekiak ere badirela dio; eztabaidarik ez, errespetua bai, baita egundoko konfiantza ere. "Horrela bizi izan dut nik hau guztia, 12 urte banitu eta lagunekin txabola bat muntatzeko elkartu izan banintz bezala... Eta lanean, eta ez jolasten, zauden ilusio, poza eta ziurtasunaz, jende serioarekin lanean zauden ziurtasunaz". Profesionaltasunez ondo pasatzea lortu dute. "Produktua banaezina da (letrak, irudiak, azala, musika...), keinu asko dira, ulertze bat da, giro bat... Oso bat da".



Mikel Valverde

artxibo



Kirmen Uribe, Rafa Rueda, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal

gaztelupeko hotsak

▼ RAFA RUEDA, Pi.L.T.-ko abeslari ohia

"Niretzat proiektu hau sentsibiltate berdinean-antzekoak dituzten lagun arteko lana da. Ardatz nagusia Euskara bera da, kanta baten hasieran aipatzen den bezala "Munduari begiratzeko modu bat". Ikuspuntu horretatik, Kirmenek jositako testuak eta gu hirurok landutako musika: Poesia eta batez ere Euskara gure mugetatik kanpo ezagutarazteko modurik politenetako bat. Taldea nahiko berezia da, bakoitza mundu diferente batetik datorrelako eta honek garrantzi gehiago ematen dio batzen gaituen horri. New York-en emanaldi batzuk egiteko batu ginen, baina sortu zen kimika berezi hori zela eta erabaki genuen liburu-disko hau egitea. Nahiz eta bakoitza mundu ezberdin batetik etorri, uste dut nahiko ondo biltzen duela lauron pertsonalitatea. Niretzat ohore handia izan da halako lan talde bateko partaide izatea".

Josune Valdez de Mendizabal
estilatu berria atz. de sartze

▼ BINGEN MENDIZABAL, musikagilea

Lan berri honetan aritzeari esperientzia polita deritzo Bingen Mendizabal musika egileak. "Bidaian sorturiko hau berezia izan da eta arlo ezberdinetan aritzen garenok bildu gaitu -azaltzen du. Esan daiteke hortaz, ez dela musikariz osatutako talde bat, non soilik abeslaria eta instrumentu jotzaileak dauden, baizik eta rockeko kantaria, poeta, musikariak, ikus-entzunezko munduko lagunak eta marrazkilaria ere biltzen diren". Bingenek "Itzul ezazue" eta "Maite zaitut" kantak konposatu ditu. Eta honetaz gain, zazpi haritako biolina jotzen du. "Elementu minimoekin adierazpen gorena bilatu dugu eta biolin honek aukera ugari ematen ditu", dio Mendizabalek.

PELLO GUTIERREZ, GIDOIGILEA



artxibo

Komikigintzan, gidoilari lanetan, hau dugu Pello Gutierrez gaztearen bigarren lan profesionala. Hogeita lau urteko donostiarrak txikitatik idatzi eta marraztu izan ditu komikiak, baita komiki lehiaketa dexente irabazi ere. Beranduago, marrazkilaritza utzi eta gidoilaritzan bakarrik gelditu zen Pello eta gaur egun telebistarako gidoilari bezala lan egiten du, batez ere umeentzako programetan ("Triki-trakatriki-tron" pailazoen saioan eta zenbait marrazki bizidunetan).

• **Nola sortu zen Aritz komikiaren ideia?**

Idea Jean François Saure argitaratzailearena da. Bere intentzioa "euskal heroi berria" sortaraztea zen, Tintin fenomenoaren oinarritzat edukita, gaztetxo eta helduentzat balioko zuena. Pilotaria izan behar zuen Aritzek, baina bere abenturek kutsu unibertsala behar zuten, eta horregatik kokatzen dira istorioak urruneko lurraldeetan. Oinarritzko ideia horiek hartuta, nik pertsonaia batzuk sortu eta garatu nituen, komiki sail baterako balio zezaketenak, ez komiki ale bakar baterako.

• **Zer-nolako esperientzia izan da laukote honekin lan egitea?**

Primerakoa! Alde batetik, Daniel Redondo gaztetako nire idoloetako bat zen. Nik bere komikien marrazkiak kopiatzen nituen txikitan marrazten ikasteko. Orain, berak nire gidoiari jarraituaz marraztea sekulako poza eta ilusioa da niretzat.

Jean Françoisekin lan egitea ere oso esperientzia polita da, gidoilari lanean askatasun osoa ematen baitizu. Normalean, gidoia idatzi aurretik bileraren bat edukitzen dugu eta berak istorioak bere ustetan hartu beharko lukeen itxura kontatzen digu. Baina handik aurrera, lana gurea da, eta berak askatasun osoa ematen digu berak aholkatutakoari jarraitzeko edo ez.

Iban Astondoa koloristarekin harremana zailagoa da, bera Gazteizen baitago eta ezin baitugu elkar ikusita hitz egin. Gidoian idatzitako oharren bidez komunikatzen gara gehienbat.

• **Zenbat denbora eraman zizun gidoia idazteak?**

Sail bateko lehen alea izatean, zaila da lanean emandako denbora kalkulatzeko, lehenik pertsonaia guztien izaera eta barne mundua eraiki beharra baitzegoen. Beranduago, atal honi dagokionez, lau bat hilabeteko lana izan da, dokumentazio bilaketa eta istorioaren bertzio desberdinak barne. Gidoia dokumentazio bilaketarekin batera sortzen da. Nik gogoan neukan Mexikoko Huitxol tribuari buruzko istorio bat idazteko, eta tribuari buruz sakonki irakurtzean, mexikar gobernuarekin dituzten arazoak ezagutu nituen. Horrek eman zidan ideia nagusia: gizarte aurreratuak baztertu duen tribu bat ardatz bezala hartuta, abentura eta misterio istorio bat sortzea.

• **Zeintzuk dira gidoigintza prozesuak dauzkan zailtasunak?**

Nire ustez, komiki batek duen gauzarik zailenetarikoa albumek derrigor eduki behar duten 46 orrien murrizpena da. Niri gustatuko litzaidake istorioa orri gehiagotan garatzea, Huitxol herriko ohituretan

gehiago sakontzea, baina hain orri gutxi edukitzean, oinarritzkoarekin gelditu behar zara: abenturarekin.

• **Emaitzarekin pozik zaude?**

Danielen marrazkien zehaztasuna eta maisutasuna paregabea da! Gainera, zuk buruan besterik ez zenituen pertsonaia bizirik ikusteak sekulako ilusioa ematen dizu. Eta Ibanek ere oso lan ona egin du ordenagailu bidez marraztean, aurpegiei itzal tonalitate desberdinak ematen dizkionean adibidez, marrazkiari asko laguntzen baitio.

• **Protagonista bezain inportanteak dira bere lagunak?**

Aritzen pertsonaia sortu zenean, norbait behar genuen istorioei "saltsa" pixka bat emateko. Horregatik sortu nituen beste bi pertsonaia, guztiz kontrajarriak. Alde batetik, Eider dugu, arduratsua, ordenatua, gauzak behar bezala egiten ote diren zaintzen duena eta jenio handikoa; eta bestetik Joxe, arduragabea, guztia brometan hartzen duena, traketsa, ahoa itxita edukitzen ez dakiena... Bien arteko kimika nabaria da, beti eztabaidaka ari diren arren, beti elkarrekin baitaude. Biak dira oso exageratuak beraien jokabideetan, baina hori behar genuen Aritzen neutralitatea kontrajartzeko. Jende askok esan dit Joxe dela komikiko pertsonaia erakargarriena, baina nire ustez Eiderren maila berdinean dago.

DANIEL REDONDO, MARRAZKILARIA

Bartzelonan hasi zen 70. hamarkadan Brugera argitaletxean marrazkiak egiten, baina han urte batzuk pasa eta gero Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen, non komikia hazten ari zen. Bilbokoa jaiotzez baina izatez hondarribitarra, Daniel Redondok egun bere 62 urteekin komikiaz bizi daitekeen gutxienetarikoa da. Bere aburuz, “komikia kanpotik ikustea gauza bat da, barrutik bizitzea beste bat oso desberdina den bitartean”. Bere artearen adibide dugu euskaraz, gazteleraz, alemanieraz, nederlanderaz eta frantsesez argitaratua daukan “Sorginaren seinalea” komikia. Hala ere, Danielek dio arrakasta erlatiboa dela: “arrakasta profesionala puntu batera arte besterik ez da lortzen, irakurleriaren menpe baitago dena. Izan ere, nik lan egiten dut bizi ahal izateko, eta adibide batekin hobe azaltzeko, aipatuko dut gure kasua aktoreena bezalakoa dela, hots, izar bat zarenean besterik ez dizutela lana eskatzen, hortaz, marrazkilari xumetzat baino ez dut nire burua”.



artxibo

• Zerk bultzatu zintuen marrazkilari lanetan aritzera?

Hau pasarte bat da. Sei urterekin lagun bat ikusi nuen “Guerrero del antifaz” marrazten, ziztu bizian egiten zuen eta liluratu ninduen. Orduz geroztik, hamalau urterekin marrazten hasi nintzen baina klaseetara joan gabe, autodidakta izan naiz betidanik. Egund ere ikasten jarraitzen dut, inoiz baino estuasun gehiagorekin, eta ez da broma, ze komikiaz bizi naiz eta nire burua gaingiditu behar dut egunetik egunera.

• Baina zu komikiaz bizi zaren gutxienetako bat zara?

Bai, baina ez pentsa erraza denik; Jesus Blascok badu liburu bat “Marraztea erraza da” izenekoa, ...baita zera ere!! Hau beste edozein lan bezalakoa da. Nik Aritz komikiarekin zazpi hilabete eman ditut, baina urtea pasatzeko beste 5 hilabete gelditzen dira, orduan eguneko bizi behar duzu...

• Nola ezagutu zenuten elkar Aritz proiektuan parte hartu duzuenok?

Beno, nik lehenik eta behin Jean François ezagutu nuen Hondarribian eta ondoren gidoigilea bilatu zuen. Niretzat lehenengo aldia da Pello eta Ibanekin lan egiten dudana eta esperientzia ona izan da. Denok gara Aritzen arima. Pellok gidoia idatzi zuen eta itzuli behar izan zuen nik ulertzeko, hori inportantea baita, guztiok elkarri uler diezaiogun. Modu horretan nik irudikatu ahal izateko.

• Behin gidoia irakurtzen duzula nola gauzatzen da zure prozesua?

Nik zirriborroak egiten ditut. Lehenengoa egin eta gustatzen zaidan edo ez hurrengo egunean deliberatzen dut. Hortaz, oraindik tintara pasa ez badut zuzentzeko aukera daukat. Batzuetan denbora behar dut egin dudana gustatzen zaidan edo ez jakiteko, ze egunero hainbeste ikusten dut azkenean ez dudala ezer ikusten.

• Zein da zure pertsonaia gustukoena?

Joxe da, Aritz eta Eiderrekin doan laguntzailea. Joxe gustatzen zait pertsona sinplea delako, atsegina eta xumea. Orain egiten ari garen komikian burugogorkeria batengatik itsasontzia hondoratzeko zorian dago, berak eraman nahi du kontrola eta azkenean lortzen du nahiz eta ideiarik izan ez.

• Zuk marrazkiak egiten dituzu eta ondoren Ibanek ematen die kolorea. Lana kate bat den heinean sorpresak egon daitezke batzuetan?

Bai, noski. Nik marrazkia tintara pasa besterik ez dut egiten eta kolore batez edo bestez imajinatu dezakezu, eta gerta daiteke koloristak beste batzuk jartzea gero. Apunte bezala, esan behar dut ordenagailua sartu denetik zoratuta nabilela; lehen eskuz ematen zen kolorea eta orain behin eta berriro aipatzen didate lerroa itxi behar dudala, bestela kolorea sakabanatzen dela.

IBAN ASTONDOA, KOLORISTA

**Zein da kolorea ematearen teknika?**

Daniel Redondok marraztutako orriak esku artean ditudanean, lehenengo kolorezko arkatzekin binetak margotzen ditut, itzalak emanaz, bolumena lortzeko. Ondoren, ordenagailuaren laguntzaz koloreztatzen ditut. Koloreak aukeratzeko orduan gidoia kontuan hartzen dut, "giroa" edo emateko, baita marrazkilariaren aholkuak ere. Azkenik, lan osoari bateratasun bat ematen saiatu naiz, pertsonaiak, kokapenak, eta abar koloreekin bereiztuz.

Zein da eskuz edo ordenagailuz egitearen aldea?

Komikiak teknika ugariarekin

Ilustrazioak, kartelak, logotipoak, muralak egitea eta tabernetan eta lokaletan margotzea du gustuko Iban Astondoa gazteak. Aramaiokoak azaltzen duenez, "komikiak txikitatik izan ditut gustuko, gaur egun arte: denetarik, Euskal Herrian egiten dena, Estatu mailan, Europan, Ekialdean eta Ameriketara egiten dena, hain justu ere". Aritz-en kolorista dugun gazte honen aburuz, "edozein komikizalaren ametsa komikiak egitea da, beraz, pozik nago lan hau egiteagatik".

koloreztatzen dira: eskuz, fotomekanikako tresnekin eta nire kasuan, ordenagailuz. Eskuz egitea da "autentiko"ena, baina horrek denbora gehiago eskatzen du. Fotomekanikaz nahiko hotz gelditzen da komikia, eta ordenagailuz egiteak nire ustez abantaila gehiago ditu: azkartasuna, garbitasuna, komikiaren bineta bera behin eta berriro egin eta desegiteko aukera, baita eskuz margotutako komikiak imitatzeko aukera ere. Komikiak eskuz margotu ditudanean akuarela edo tenpera erabili ditut, eta Aritz komikiari ere teknika horren itxura berbera ematen saiatu naiz.

Baloratua al dago koloristaren figura komikigintzan?

Normalean hemen egiten diren

komiki gehienak pertsona berak marraztu eta margotzen ditu, askotan gidoia ere pertsona berak egiten du. Kasu honetan talde lana izan da, eta metafora edo antzeko bat erabiliz azalduko nuke: komikia pertsona bat balitz, gidoia "arima" litzateke, marrazkia gorputza, eta kolorea, azkenik, jantzia. Pertsona bat jantzi barik bizi daiteke, baina ez arima edo gorputz barik, hala ere, jantziak pertsonari "izaera" ematen dio, bera aberastuz (edo batzuetan ere itsusiagotuz...).

Zer sentitzen duzu komikia kolorez janzten duzunean?

Komikiari egindako ekarpenaz pozik nago, ilusioz egindako lana da eta espero dut irakurleen gustukoa izatea.

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

Aritz eta
haren
lagunak
Mexikorantz
abiatu
dira euskal
pilotako
txapelketa
bat
jokatzerara...



KOMIKIA

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



KIDE
APAINDURA
Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Zientziak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobile: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

OLABIDE IKASTOLAK 63an EREINDAKO HAZIA



Olabide Ikastola, Estibaliz etorbidean, 1967ko urritik aurrera



Ikastolako lehenengo belaunaldiko haurrak eta andereñoa, Olentzero egunean.

40 urtez egindako lan eta ahalegin eskergaren emaitza da Gasteizko Olabide Ikastola. 1963an euren seme-alabak euskaraz ikastea nahi zuten guraso talde hark ezin zuen imajinatu beraiek

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz, artxibo

Duela berrogei urte inguru, Gasteizen baziren guraso batzuk euren seme-alabak euskaraz ikastea nahi zutenak. Ez zekiten, ordea, nondik hasi eta nola bilatu horretaz arduratuko zen pertsona, frankismo garaia baitziren, eta euskaraz ikastea ezinezkoa baitzen. Zailtasunak itzelak izanagatik, guraso talde hark aurkitu egin zuen beren seme-alabei ordu batzuetan klaseak euskaraz eskainiko zizkion emakumea: Izaskun Arrue.

Hasiera batean, Gasteizko Zerkabarren kaleko pisu txiki batean ematen zituen klaseak Arruek, 14

umeri. Eta hortxe hasi zen, oharkabean noski, Olabide Ikastolaren historia. Hasieran 14 ume zeuden eta hantxe egoten ziren lurrean eserita, goizeko 10etatik eguerdiko 12etara, eta arratsaldeko 3etatik 5etara. Oso baliabide gutxirekin ikasten zuten, idatzizkoen artean ez zuten ia bat ere, eta bestelakoak ere apenas. Traba ekonomikoak ere ez ziren nolanahikoak. Haurren gurasoek 125na pezeta ordaintzen zituzten hilean, baina horrekin ez zen iristen Arrueren soldata ordaintzeko, eta falta zena beste guraso batzuek jartzen zuten.

Halakoxeak izan ziren Olabideren hastapenak, Ikastolako zuzendaria Iñaki Zubeldiak GEUri adierazi dionez. "Ausardia behar zen seme-alabak eskola klandestino batera eramateko... arrisku handia zen, baina guraso haiek sinestuta zeuden hura hoberena zela beren seme-alabentzat", diosku.

Eta hain justu gurasoak sinestuta zeudelako hazi egin zen Arruek jarritako hazia. Umeek hiru ikasturte egin zituzten Arrueren etxeko gelan, baina ordurako ezin ziren ongi moldatu. 32 ume inguru bazirenez, gurasoek beste urrats bat eman zuten eta Estibaliz

40 urte

olabide ikastola

AIKA

ERREXAL BIHURTUTA



jarritako hazia halako zuhaitz sendo bilakatuko zenik. Gainditutako oztopoak, hamaika. Egindako lana, demasekoa. 40. urtemuga ospatzeko nahikoa arrazoi ditu Olabide Ikastolak.

etorbideko 26an txalet bat alokatu zuten, eta 1967ko urrian hasi ziren bertan klaseak ematen, gerora hiru andereñoekin.

Legezkotasuna, pauso erabakigarria

1968ko urriaren 3an hasi zen legepeko izaten, egun horretan eman baitzion Madrilgo lehen-mailako Irakaskuntzako Zuzendaritzak, idazki bidez, legezkotasuna ikastetxeari 'Colegio Padre Raimundo Olabide' izena emanez (ikastola hitza aipatzerik

ere ez). Pauso hori ematea ez zen batere samurra izan, Zubeldiaren esanetan. Izan ere, asko eta asko ziren Espainiako legediak garai hartan zioena onartzearen kontra zeudenak. "Formacion del Espiritu nacional" delakoa onartu behar genuen, Espainiako ereserkia ikasi eta abestu behar genuen, Francoren argazkia klaseetan jartzera behartzen gintuzten...". Legezkotasuna onartzearen beste aurpegia zen hura.

Lan eta arazo faltarik ere ez zuten izan garai hartan. Aurreko garaian legezko tokirik eza gainditu behar

izan bazuten ere, oraingoan benetako tokirik ezari etengabeko erantzuna eman beharra zegoen. Ikasleen guraso batzuek sortutako Arriaga elkarteak emandako laguntzaz baliaturik, Estibaliz etorbidean bi txalet gehiago erosi zituzten. Horiek ere egokitu behar izan zituzten, eta horretarako lan orduz kanpo, lan eskerga egin zuten irakasle eta gurasoek.

Beste arazo handi bat diruarena zen. Dirua behar zen, baina ez zegoen. Orduan, bazkide-babesleak direlakoak sortu ziren: jende askok diru mordoxka eman zuen, isilean, eta diru horri esker



IÑAKI ZUBELDIA,
Olabide Ikastolako zuzendaria:

***"Ikasleen euskalduntzea da gure
erronka nagusia"***

- 40 urte bete ostean, nola ikusten duzu Olabide Ikastolaren etorkizuna?

Gure egitekoa sendotu egin behar dugu. Aurrera egin nahi badugu, espiritu jakin bat behar dugu, hots, gauzak gero eta hobeto egitea. Ikastolan beti izan dugu grina hori, eta argi dago gauzak ongi egingo ez bagenitu, gurasoek ez lituzketela beren seme-alabak gurera ekarriko.

- Zeintzuk erronka dituzue epe ertainera?

Ikasleen euskalduntzea da gure erronkarik nagusia. Bermatu behar dugu Olabidetik ateratzen diren ikasle guztiak gai izatea euskaraz txukun egiteko. Irakaskuntza euskaraz ongi egitea bermatu behar dugu, bai eta ikasleen arteko harremanak euskaraz izatea ere.

- Ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko neurri edo ekimen berezirik al duzue?

Bi arlo jorratzen ditugu: klase barruan irakaskuntza euskaraz eskaintzen da, eta klase orduetatik kanpoko ekintza osagarri guztiak euskaraz egiten saiatzen gara: saskibaloia, esgrima, musika hastapena, korua... Bestelako kanpainak ere bultzatzen ditugu, umeak motibatze aldera. Esaterako, 'Ahotxo' izeneko panpina sortu dugu helburu horretarako, besteak beste.

egin zuen aurrera proiektuak, kooperatiba moduan antolatzeraino.

Auzolana oinarri

1972ko ikasturtearen hasieran izena emandako ikasleak ia 500 ziren. Gehikuntza horren aurrean eta hurrengo urteetan kopuruek gora egingo zutela jakinda, Olabidera joaten ziren ikasleen gurasoek 'Aita Raimundo Olabide Irakaskuntzako Kooperatiba' eratu zuten. Kooperatiba sortzeak auzolanarekin zerikusia izan zuela nabarmentzen du Zubeldiak: "Ikastola gehienek sorkuntzan, baita gurean ere, gurasoak daude atzean, eta auzolanean egindako zerbitzu izaten da. 70. hamarkadan eskariak gora egiten duenez, egoera berria bideratzeko, legez ongi hornitzeko, kooperatiba sortzen da, non gurasoak diren bazkide eta horren bitartez kudeatzen duten ikastola".

Kooperatiba sortu, eta lehen erabakia ikastolaren kokalekua aldatzea izan zen, Estibaliz etorbidean luzaroan jarraitzea ezinezkoa zitzaielako. Lasarten 20.000 metro kuadro lur erosi ziren, eta guraso guztien diru laguntzari esker posible izan zen 1975eko apirilaren 19an Olabide Ikastolak egun Lasarten dituen instalakuntzak zabaltzea.

Ikastolaren finkatzearekin aro bati amaiera jarri eta beste bati hasiera eman zitzaion. Arazo ekonomikoei bainoago, bestelako eztabaida eta traba batzuei aurre egin behar izan zien Olabidek, beste hainbat ikastolak bezalaxe. Euskara batuaren ezarpenak, esaterako, eztabaida sakona eragin zuen, eta Izakun Arruek dimititu egin

IRVSTA **TABERNA**
poteo eta pintxoak Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA
Sagardotegia
Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

"Gaur egun, Arabako ikastolarik handiena da Olabide. Urteotan gurekin aritu diren 20.000 lagunen, ikasle, irakasle, langile edo kooperatibako kideen fruitua gara. Berrogei urteotan gauza izan gara guregana hurbildu diren hogeit mila lagun horiei sinestarazteko erabateko konpromisoa dugula kalitatezko hezkuntza euskalduna eta eleanitzarekin".



zuen, euskararentzat ona ez zela uste zuelako. Ereduen ezarpenak eta erlijioaren irakaskuntzak ere hamaika buruhauste eragin zizkien Olabideko irakasleei, eta "une oso larriak" bizi izan zituzten.

1993ko Euskal Eskola Publikoaren legearekin ere oso memento erabakigarria bizi izan zuten Olabiden. Sare publikoan ez sartzeko erabakia ez zela batere samurra izan diosku Zubeldiak, baina ongi hartutako erabakia izan zela azpimarratzen du: "Ikastolaren senari jarraituta argi zegoen ez genuela tokirik sare publikoan, auzolanean eraikitako egitasmoa delako, partaidetza handia eskatzen duelako, eta egituraketa instituzional batean gurasoen eta irakasleen erabaki eta partehartze

maila oso murriztua geratzen delako". Erabaki hartatik Olabide Ikastola "indartuta" atera zela dio Zubeldiak.

Indarrez egingo dio aurre etorkizunari, gainera, Olabidek. 40 urte betetzeak horretarako kemena ematen baitio. Zorionak.



40. URTEURRENAREN EGITARAUA

2003. AZAROAK 21

Musika eta kultura ikuskizuna.
Benito Lertxundi.
Mendizorrotzan

2003. ABENDUAK 2

Ekitaldi instituzionala Euskararen Aholku Batzordearekin

2004. URTARRILAK 21-OTSAILAK 3

Olabide Ikastolari buruzko erakusketa, argazkiz eta agiriz osatua. Europa jauregian

2004. URTARRILAK 30

Pedro Miguel Etxenike jaunaren hitzaldia, Europa jauregian

2004. OTSAILAK 4

Agate Deuna egunaren bezpera: ibilbidea Gasteizko erdialdean zehar

2004. OTSAILAK 19

Inauteetan, eguen zuri ospatzea

2004. MARTXOAK 15

Aita Raimundo Olabideren jaiotzaren urteurrena ospatzea

2004. APIRILAK 28

Prudentzio Deunaren eguna: Olabide Ikastolaren haur-danborrada

2004. EKAINAK 5, 6

Kirol olinpiada. EIBko ikastoletako ikasleen arteko kirol-olinpiadak

2004. EKAINAK 6

Ekitaldia, Ikastolan Batxilergoa bukatzen duten ikasleekin

2004. EKAINAK 23

Gastronomia lehiaketa eta San Joan sua

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracleo Fournier, 23
Iñoa: 15 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Iñoa: 24 19 91
01004

Dalvez
argitaratzaileak

Tel./Faxa: 945 24 52 69

Tfnoa: 652 77 65 09

dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net diseinua

maketazioa



ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16

Tfnoa: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

EMAKUMEAK HERRIA

Gasteizko zenbait emakumek, Gobernuz Kanpoko Erakundek eta erakunde sozialetako militanteek, eztabaida eta hausnarketarako gune bat ireki zuten azaroan, 'EMAKUMEAK HERRIGINTZAN: Mendebaldeko Saharako kasua eta latinoamerikar esperientzia' lelopean antolatutako topaketetan. Bertan, Sahara eta Hegoamerikako emakumeen erakundeek euren esperientziak partekatuz, elkarrengandik ikasiz, emakumeen erresistentzia historikoa eta bake prozesuetan duten protagonismoa eta partehartzea aldarrikatu eta ikusarazi zuten.



xabier errasti

Saharako eta Hegoamerikako emakumeek komunean dituzten kezkak eta esperientziak elkartrukatzeko parada izan zuten azaroan, Gasteizen. 'Emakumeak Herringintzan: Mendebaldeko Saharako kasua eta latinoamerikar esperientzia' lelopean topaketak antolatu zituzten **SEADen lagunen elkarteak eta Hikaateneo-k.** Gatazka armatua, babesak, erakundegintza, estatu eta beste eragile sozialekiko harremanak, eta gatazkaren ondorengo aukerak eta arriskuak aztertu zituzten azaroaren 6tik 11a bitartean, bai eta halako egoerek sortzen dituzten lorpen, tentsio eta mehatxuek emakumeen botereratze bidean dituzten eraginak ere.

Amaia Cadarso SEADen lagunen elkartearen kideak topaketa horien helburuak azaldu dizkigu. Adierazi digunez, Hegoamerikan egon diren iraultza sozialetan emakumeek "ustezko hobekuntza" lortzen zuten, baina gatazka amaituta, ustez lortutako

garaipenak ez zirela horrenbestera agerian geratu da. Beraz, emakume horiek bizitako esperientzia hori baliagarria izan dakieke Saharara bueltatu nahi duten emakumeei, gatazkaren osteko egoerari aurre egin ahal izateko.

Orora Mexiko, El Salvador, Guatemala eta Saharako zortzi emakumeren esperientziak entzuteko aukera egon zen azaroaren 8an eta 9an Jesus Obreron burututako topaketetan; hauetxek: UNMS Saharako Emakumeen Nazio Elkartearen kideak diren Zahra Ramdane, Maima Mahamud, Embarka Hamoudi eta Suelma Beiruk; MZC Gatazka Guneetako Emakumeak gobernuz kanpoko erakundeko kide Rosabel Agirregomezkorta, Norma Vazquez mexikarra eta Morena Herrera El Salvadorrekoa.

Emakume horiek guztiak ez dira nolanahi aukeratu. Izan ere, guzti-guztiak emakumeen erakundeetan aritu izan dira, edo oraindik aritzen

dira. Erakunde horiek, gehienetan, gizonak buru izan diren mugimendu iraultzaile askatzaileekin zerikusia izan dute, eta denborarekin emakumeak beren kabuz antolatu dira, "independentzia handiago batera jo dute, bakoitzak bere helburu propioak eta garapen prozesu propioa izan duelarik".

Saharako emakumeen batasuna indartu

Topaketok goizez eta arratsaldean antolatu ziren, eta bi erataria egin ziren: tarte batean lan tailerrak egin zituzten, eta bestea, "informalagoa", elkarbizitzaren egoteko baliatu zuten.

Lan tailerrei edo eztabaidei dago-kienez, Hegoamerikako eta Saharako emakumeen artean solasaldi eta hausnarketa interesgarriak izan ziren, Maite Fernandez Villa antolatzaileetako baten hitzetan. "Genero ikuspegitik emakumeek emandako aurrerapausoak eta atzerapausoak aztertu zituzten,

ERAIKITZEN

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz eta xabier errazti

Komuneko ezaugarriak

Topaketon ondorioak aipatzerakoan, mementoz esperientzia trukaketa bat besterik ez dela izan komentatu digute antolatzaileek. "Argi ikusi da, halere, aurrera jarraitzeko gogoia daukatela, elkarrekin harremanak mantentzeko, elkarri laguntzeko, bizipenak elkartrukatzeko...", dio Amaiak.

Herrialde bakoitzak ezaugarri propioak izanagatik, ozeano atlantiarraren bi aldeetako emakumeek komunean gauza asko dituztela nabarmendu digu, bestalde, Amancay Villalba Hikaateneo-ko kideak. "Emakumeok pairatzen dugun egoera berdintsua da mundu osoan, leku guztietan desberdintasuna ematen da, beraz, oso egokia da munduko emakumeek egoera hori komunean jartzeko aukera izatea".

emakumeek zein mailaketa lortu dituzten, gizonezkoek gidatutako erakunde iraultzaileekin izandako jarrerak eta behin gatazka amaituta, emandako pausoak ere mintzagai izan zituzten".

Horren haritik, jardunaldien helburuetako bat Saharako emakumeen batasuna indartzea izan dela dio Maitek. Izan ere, Saharako emakumeen Elkarrekin berezitasun bat dauka, hots, "urte gehiegi irauten ari den gatazka prozesu bat bizi dutela". El Salvadorren, esaterako, gatazkak ere luze jo zuen (12 urte), baina ez Saharakoak bezainbeste (28 urte inguru baitaramatzate errefuxiatuta). Hartara, gizonezkoak Saharara itzultzen direnean, ez dira herrialde batera bueltatzen, errefuxiatu kanpamenduetara baizik, eta hori kontuan hartzeko datua da, Saharako emakumeen etorkizuna aztertzeke orduan.



Amancay Villalba, Amaia Cadarso eta Maite Fdz. Villa, topaketen antolatzaileak

GEU ALDIZKARIA

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!!

Tfnoa: 945 22 21 53



Errege atea, 9 - GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiral arratsaldeak,
larunbat eta
igandeetan
IREKITA

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Zure denda erotikoa

SEX

**PITILIN
GORRI**



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

ABENDUA

zorionak, gabon eta urte berri on

1-12

ELKARTEEN ETA PARTAIDETZAren HAMABOSTALDIA
Informazioa: Gazteriaren Kontseilua (945220601); Erdu Agentzia (945161687); Kulturama (945141060).

2

PARRAL TABERNA
ABENDUKO EGITARAUA
8. URTEURRENA
Abenduaren 2tik aurrera (ikus. 2. orrialdea)
zorionak!

4

7 GEZUR TXIKI
Musika eta antzerki ikuskizuna euskaraz
Aktoreak: Ramon Agirre eta Joserra Senperena
Aldabe antzokian. Abenduak 4, 20.30etan (9 euro)
Antolatzailea: Gasteizko Udala

4-8

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKOAREN AZOKA
Bertan Geu aldizkaria ere egongo da (Topaguneko stand-ean).

4

BERTSOTAN BAGARE 2003
Bertsolari gazteentzako sariketa kantuzalea
FINALA
Ander Lizarralde, Miren Artetxe, Julen Zulaika, Xabier Paia, Iñigo Izaguirre, Enaitz Alustiza. Aurkezle: Irati Lotina
Abenduaren 4an - Euskadiko Kutxako aretoa (Dato kalea) 20:00etan

11

ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN
Geu elkarte & Gauekoak-ren ekimenez
Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Mikel Valverderen egitasmo berria
Abenduak 11, Principal antzokian, 20.30etan
GEU ELKARTERA DEITUTA SARRERAK ERRESERBATU DAITEZKE, ABENDUAREN 5a baino lehen (ikus. 7. orr)

20, 23-3, 24

EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA
BIDAIK EUSKARAZ. MINTZA PRAKTIKA
Euskal Herriko herri euskaldunetara irteerak hileroko azken larunbatean (5. Urratsa beharrezkoa da gutxienez).
SENPERE. (Autobusa: 15 euro. Janaria eraman)
Abenduak 20. - Irteera: goizeko 9.00etan, Las Nieves-eko elizatik
- Itzulera: 21.00etan

NEGUAREN HOTZEAN, EUSKARAZ BERO-BERO

Abenduaren 23tik Urtarrilaren 3ra. Aranbizkarran
- **Haurrentzako tailer eta jolasak**, herri kirolak, igerilekua euskaraz, ipuin kontalaria, zinema, zeramika, margoa eta marrazketa, heldueltzako bertso tailerra, taldekako bertso txapelketa, euskal musika tresnen lantegia, informatika, ardo dastaketa, gazteak eta euskara, hitano ikastaroa... eta nola ez, Olentzero mitologikoa

- **OLENTZERO MITOLOGIKOA**. Abenduaren 24an. 17:00etan
Amaia Zentroan hasita
Bidaia mitologikoa Aranbizkarrako parketik Olentzero, Galtzagorriak, Lamiak, Basajaunak, Mari, Akerbeltz, Sorginak... Trikitixa, txalaparta, bertsoak, dantzak eta akelarre mundiala!

Informazio gehiago: Euskharan kultur elkarte, 945288275
Aranbizkarran, Benito Pz. Galdos plazan - Amaia zentroa (harrera orduak: astelehenetik ostegunera, 20.00etatik 21.30etara).

**4, 11, 18**

MINTZALAGUNA,
GEU elkartearen eskutik
Ostegunero, Falerina kafetegian (Montehermoso), 19.00etatik aurrera: asmorik baduzu bertan parte hartzeko elkartean izena eman ezazu (945222153, arratsalde. Josune).

14

GEUREKIN MENDIRA
Abenduaren 14an
SAIBI (946 m.), ERRIALTABASO (1018 m.)
ARDURADUNA: JOSEBA (945200973)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00etan

20

BONBERENEA
EKINTZAK
TANTA taldearen CD berriaren aurkezpena + Akauzaste (bideo proiektzioez lagunduriko zuzenekoak)
Abenduak 20
Gasteizko Gaztetxean

24

"OLENTZERO JOAN ZAIGU..."
Olentzero kalejirak, Gasteizko auzo eta karriketan zehar.

5

GAUEKOAK
- GAZTEENTZAKO IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN X. LEHIAKETA (14 urtetik 25era)
- Gaia: "utxidazu kontatzen..."
- Informazio gehiagorako: Gauekoak (945141060)
- Epea: abenduak 5

17

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA
Geu elkartearen ekimenez (ikus. 33. orr.)
Abenduaren 17a, asteazkena
Patxi Zubizarreta, Barrikadak, Alberdania 2003
*idazlea bertan izango da

30

Geu elkarte & KULTUR ERROTA
IRUDIPUINAK marrazki kontatuak, kontu marraztuak, ipuinirudiak, marrazioak
IXABEL AGIRRESAROBÉ + MATTINen eskutik
ABENDUAK 30
Parral-en, 20.30etan

geugaste@grn.es

geuelkartea@grn.es

ONDO AMAITU URTE ZAHARRA, ETA ONDO BAINO HOBETO HASI URTE BERRIA!

laburpena

I. atalaren laburpena (azaroko alea) DEPENDE. ISA DIAZ

Musika talde bateko kideak, erlatibotasunaz mintzo. Depende. Demagun. Josu, taldeko kideak ez ditu halako eztabaida luzeak gustuko. Taberna bat, txirriak, hitzak gora eta behera; kikarak, hautsontzia, garagardoak... Esku artean duten musika proiektuaz aritzeko elkartu dira, teoriak. Josuk ospa egitea erabakitzen du; berak sortutako kanta berri batentzako hitza zekarren paper batean idatzita. Gosea, gerra, miseria, sufrimendua, injustizia, Maddiren ahotan... Depende. Demagun... Baina Maddik, berak Afrika ez duela aipatu adierazten du.

estitxu breñas glz. de zarate



juantxo egaña

JON ARRETXE**DEPENDE (II. atala)**

Denbora luzean jarraitu zuten elkarrizketa harekin solaskideek, ia etenik egin gabe. Afrika gora eta Afrika behera lehenengo, Asiar pasatu ziren jarraian, Hego Amerika ere ez zuten alboratu... Mundua konpondu nahian bezala, gauza guztien funtsezkotasunaz, erlatibotasunaz, dependetasunaz jardun zuten, txirriak kontsumitzeari utzi gabe. Haien jarria ulergaitzago eta aspergarriago bihurtuz zihuan taldean sartuta ez zeudenentzat. Horixe pentsatu zuen mahaiepeko txakurrak, aspertzen ari zela, baina ez zuen protestarik adierazi. Antzeko zerbait gertatu zitzaion tabernariari; aldika belaria erna jarri eta eztabaidaren nondik norakoaz jabetzen saiatzen zen, baina azkenean amore eman behar izan zuen, eta barraren barruko gauzak txukuntzeari eman zion, erabat gogaiturik, lokala hutsik baitzegoen ordurako. Mahai inguruko sasimusikariak

ziren azken bezeroak.

Halako baten, ordea, solaskide guztiak itsualditik aterarazi zituen oihu bat aditu zen tabernako atean:

-Potroetaraino nago zuen rolloaz! -Josu zen halako haserreaz mintzatzen zena sarrera aldetik. Winchester antzeko eskopeta luzea zeukan eskuetan eta taldea apuntatzen ari zen-. "Dena da erlatiboa, segun eta, depende...". Kaka, betiko txapa! Horrenbeste txokolate erretzeak lehorte egin dizue garuna!

Tabernaria, westernetako bere ofiziolak imitatuz, makurtu egin zen barraren atzealdean, luze barik iskanbila hasiko zela sumaturik. Mahaiko bakeroek, aldiz, harri eta zur begiratu zioten errifledunari, zelan jokatu ez zekitela.

-Orain bai, ezta?

-Orain bai zer, Josu? -ausartu zen erantzuten Maddi, kikilduta.

MARRAZKIAK & KOADROAK**MOLDURAK****LAMINAK****zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI**ASKATUTA!**

-Orain bai zaudetela prest kanta berrirako asmatu dudana letra entzuteko.

-Gu beti gaude zuri entzuteko prest, Josu, baina... zergatik ez duzu aldentzen arma hori?

-Ez dudalako nahi! Eta ez hasi berriz gezurretan, bestela...!

Tiro egiteko keinua egin zuen winchesterdunak eta orduan bai ireki zitzaizkiela itsu guztiei begiak, ikaraz ireki ere, bat-batean bizkorturik.

Tentsio handiko segundoak etorri ziren gero. Ez zen inor ausartzen ahoa zabaltzen, izua ageri zen mahaikideen begitartean, axolagabekeria mahaieko txakurrarenean, tabernariarenean ezin jakin, zalantza kutsua armadunaren musuan...

Josuk, orduan, arma lurrera begira ipini, poltsikotik paper zimurtua atera, ondo zabaldu, estul txikia egin eta irakurtzen hasi zen, sentiberatasun handia zeriola bere ahoskerari:

Maite zaitut maite, maite, maite
Ez al duzu aditzen nire aienerik
Mendi garaienaren tontorretik
Etsipenez gainezka amodio eske?

Ezin izan zuen aurrera jarraitu errezitatzailak, barraren atzealdetik aditu zen barretxoak mahaikideetako bat kutsatu baitzuen berehala, eta beronen keinuak lagun bat, eta beronek beste bat, eta luze barik denek amaitu zuten barrekak.

Errifledunak mahaieko txakur patxadatsuari so egin zion, etsipenez:

-Zerriei arrosa-petalo usaintsuak botatzea legez.

Eta hitz horiek esanda, inolako asaldurarik erakusteke, winchesterra osteria ere jaso eta tiroka hasi zen. Banan-banan garbitu zituen bere adiskide ohiak, eta ez zen tabernariaz ahaztu: barra gainera salto egin eta untxi iheslaria legez harrapatu zuen. Gero, bizirik zirauen tabernako izaki bakarrari zuzendu zitzaion berriro:

-Goazen, Lagun, oraindik lan handia baitugu egiteko herri honetan.

Kale ilunera irten ziren biak elkarren ondoan. Josuk, arma txamarra barruan ezkutaturik zeukala, batera eta

bestera begiratu zuen, eta inguruko lokal guztiak itxita zeudela ohartu zen. Espaloitik eskuinalderantz jotzea erabaki zuen, herriaren erdigunerantz, eta buruan zeukan kanta berria txistukatuz abiatu zen, txakur txintxoak atzetik zeramala.

Taberna ireki bat aurkitu zuten handik bostehun bat metrora. Oso toki txikia zen, dozena bat poteatzailerekin beteko zena, baina une hartan ez zegoen espazio problemarik, berrogeita hamataka urteko tabernari bibotedun argalaz gain bezero bat baino ez baitzegoen bertan: barraren azken puntan bere edalontzi luzeko wiskyari begiratzen zion gizon lodi mozkortia, indiar hazpegikoa.

Josu eta txakurra sartu zirenean, tabernaria barra garbitzen ari zen zapi batez, bezero bakarraren jardun aspergarriari ihes egin nahi eta ezinik. Harriduraz begiratu zien etorri berriei. Josuk Laguni lurrean etzateko agindu, jarleku luze baten eseri eta, ezker besoa barran ezarriz, bibotedunari so geratu zen:

-Zer edan nahi duzu? -galdetu zuen beronek, berotasun handirik gabe.

-Baduzue laranjazko mirindarik?


-Mirindarik? -erantzun zuen tabernariak, axolagabekeria eta harriduraren arteko keinua eginez-. Adarra jotzen zabilta? Orain dela hogeitaka urte desagertu ziren mirindak zirkulaziotik, zu jaio baino lehen. Nondik daukazu zuk mirinden berri?

-Metraje laburreko film ospetsutik.

-Zer film?

Josuk, erantzun beharrean, lurrean etzandako txakur lasaiarengantz zuzendu zuen begirada. Gero barraren beste muturreko indiar serioari begiratu zion, eta azkenean berriro tabernariari, txamarra barruan ezkutaturik zerman tramankulua eskuin eskuko atzamarrez laztanduz:

-Entzun nahi duzue nire azken kantarako asmatu dudana letra?



© jon arretxe & geu aldizkaria

SARLU
Zure arropa eta ainetakoa!
www.sarlufenda.com
Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA
TABERNA
Erroaldia, zetaletxeak, txistutak...
JANTOKI
VEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABERKOAREN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
MIKEL
DELIKA

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

UKATUTAKO KONKISTA

KOLDO ORTIZ DE GINEA

“Begiek ez dute ezagutzen dutena baino ikusten, bilatzen dutena aurkitzen ez badute, ezer ez dagoela esaten dute”, auzitegiko medikuntzako pentsamendu sakon hori jakintzaren edozein esparrutan aplika daiteke. Gure historia aztertzeo erabiliko dugu guk. Iragana historia ofizialak irakatsi diguna dela baino ez dakigu; hau da, gure begiek historian ikusten dutena eskolan, liburuetan, komunikabideetan etab. historiari buruz irakurri eta entzun duguna da. Baina ez dugu ahaztu behar historia ofiziala idazten dutenek ikuspuntu jakin bat izaten dutela beti, boterearen ikuspuntua hain zuzen ere. Bidegabekerietan, faltsukerietan eta gezurretan oinarritutako historia da. Eta historia gezurretan, faltsukerietan eta bidegabekerietan oinarrituta baldin badago, historialari ofizialek ez dute hori kontatuko, jakina. Beraz, gure begiek ezin dute ezkutatutakoa eta aldatutakoa ikusi, guretzat ez baita existitzen. Guztiek dakitena eta kontatzen digutena baino ez dugu aurkituko.

Hala ere, iraganean nahiz gaur egun historia ofizialak ezkututzen dituen gertaerak kontatu dituzten historialari batzuk badaude, gutxi badira ere. Egia kontatuz beste gauza batzuk ere existitzen direla ikusarazten digute, guk ikusi ezin ditugun arren. Pertsona horiek bertsio ofizialeetik haratago ikusten laguntzen digute.

Gauza jakina da baita ere gaur egungo historia iraganeko historiarekin lotuta dagoela beti; hau da, gure oraina baieztatzen dugun bakoitzean iraganak berretsi egiten digula ikusten dugu. Gaur euskal herritarrek beren nortasuna eta autodeterminaziorako eskubidea aldarrikatzen baldin badute, iraganean ere ideia hori aurkituko dugu: Euskal Herria iraganean ere existitu zen eta gaur egun eskubide hori ukatzen diotenak iraganean eskubide hori kendu ziotenen ondorengoak dira. Artikulu labur honetan existitzen ez direla dioten gertaera horiexek kontatu nahi ditugu.

Irlandan izan den edonork jakingo du irlandarrek ondo ezagutzen dutela ingelesek uhartea hartu zuten data: 1171ko urriaren 17a. Gure artean, aldiz, gaur egun oraindik bizi dugun gatazkaren hasiera noiz izan zen

galdetuko bagenu, erantzun asko izango genituzke, galdera bera onartu baldin badaiteke behintzat. Beraz, hasiera-hasieratik sistematikoki egindako desnazionalizazioak fruitua eman duela argi dago. Beren herriaren alde apustu egiten duten haien ausardiak baino ez digu etorkizunean sinesten jarraitzen uzten. Gure artean askok eta askok ez dute beren herriaren historia ezagutzen eta, horregatik, ezagutaraztea nahitaezkoa deritzogu.

Garona ibaiaren eta Oka Mendien –Burgosko hiriburuaren iparraldean– artean bizi zen herria bakarra zen, baskoien herria, eta hizkuntza berbera hitz egiten zuten guztiek, erromatarrek ‘lingua navarrorum’ deitu izan zutena, euskara; beraz, herri hura Euskal Herria zen, edo euskaraz hitz egiten duen herria. Baskoien instituzionalizazio politikoaren hasiera gutxienez V. mendean ezarri behar da, lehenengo Baskonia gisa eta gero Nafarroako Erresuma gisa. Erresuma hori Europako garrantzitsuenetakoa zen. Penintsulako herri bakoitzak bilakaera historiko berezia izan du; hala, bada, Portugalek 1668. urtean lortu zuen behin betiko independentzia, Nafarroako Erresumaren azken zatia 1512. urtean konkistatu zuten, Errege-erregina Katolikoek Galizia konkistatu zuten, Borbongo etxekoek Katalunia konkistatu zuten etab.

Herri euskaldunaren izaera inde-

pendentea ere ezaguna da, bisigodoen erregeek adierazitako esaldi ospetsu honek islatzen du: ‘domuit vascones’. Geroago, Karlomagnok, karolingiarren dinastiako kide ezagunenak eta mendebaldeko inperio handiaren fundatzaileak, Garona gurutzatu zuen. Garai hartako kronikarien arabera, “akitaniarren eta baskoien mugan dagoen ibaia”. Hau da, Karlomagno Baskonia kontinentalean sartu zen, Gaskoinia izenez ezagutzen den lurraldean. Baskoiek garaipena lortu zuten enperadore horren kontra Orreagan 778. urtean. Porrota izugarria izan zen eta baskoiek inperioaren iraupenerako arrisku handia zirela pentsatu zuten. Horregatik, Karlomagnok Akitania euskaldunaren eskualdean erresuma bat sortu zuen eta, salbuespen moduan, bere semea izendatu zuen eskualde horretako errege.

Bien bitartean, Pirinioetako hegoaldeko euskaldunen patua Nafarroako mugetatik at erabakitzen ari zen. Inguruko erresumek beren lurraldeak hedatzeko zuten asmoaren eta erresumako indarrak hainbat frontetan zatitu beharrak sortutako ahultasunaren ondorioz, konkistatzeko arriskua gero eta handiagoa zen. Gaztelako eta Aragoiko erregeak hainbat aldiz bildu ziren eraso prestatzeko eta Nafarroako erresumaren banaketa hitzartzeko. Azken bilera Calatayuden egin zuten 1198. urtean. Urte horretako udaberrian tropel gaztelauk

Portillako gaztelua, ZABALATE, Gaztelako Erresumaren aurkako Nafarroako Erresumaren borroken lekuko.



eta aragoarrek Nafarroa ekialdetik eta hegoaldeko eraso zutela badakigu. Aragoiko Pedro II.a erregeak Aibar eta Burgi herriak hartu zituen, baina gero utzi egingo zituen. Gaztelako erregea, bere aldetik, ekainaren 5ean Gasteizko ateetara iritsi zen, Nafarroa osoko gotorleku indartsuenera. Hiria hartu ezin zutela ikusita, inguratu eta setiari egin zuten, eta Jose Moret Mendi (1615-1687) Nafarroako Erresumako kronikari ofizialaren arabera, “bateriekin, erasoekin eta armen indar guztiaekin hasi zen: setiatuak indar handiz defendatu ziren eta odol ugari jaurti zen”. Zazpi hilabetez luzatu ziren borroka odoltsu haiek eta gosetearen ondorio latzak jasaten hasi ziren. Antso VII.a Azkarrak horren berri izan zuenean –une horretan Marokon zebilen, hango erregearen laguntza eske–, gasteiztarrei errenditzeko esan zien. Beste hamazazpi egunez borrokan jarraitu zuten, erregea itzuli eta laguntza ekariko zien itxaropenez. Baina laguntza ez zen iritsi eta Gasteiz 1200. urteko urtarrilean errenditu zen.

Orain arte adierazitako gauza asko ezezagunak baziren, Arabako Gesaltzan gertatutakoa, zehazki, Portillako gazteluan gertatutakoa, are ezezagunagoa irudituko zaizue. Gaztelu horren benetako toponimoa Zabalate da, hau da, ate zabala, eta izen hori ere ezkatu egin nahi izan digute. Horrelakoekin gure memoria eta gure herriaren kontzientzia desagertzea nahi dute. Gotorleku honek erasotzaileei aurre egin zien, aurrean zuen armada boteretsuak konkista burutu ahal izateko arma mota ugari zituen arren. Gaztelua gaur egun oraindik ukatu egiten zaigun askatasuna babesteko nahiaren eta konpromisoaren erakusgai da. Nafarroako erregeak, antolamendu estrategikoarekin lotutako gaien ondorioz, Miranda de Argaren truk eman zuenean baino ez zen Gaztelako erregeen esku gelditu. Orduan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zati handi bat galdu zen. Nafarroako Erresumako gainerako lurraldeak hurrengo mendeetan konkistatu zituzten: Biasteri 1460. urtean, Nafarroa 1512. urtean eta Nafarroa Beherea 1620. urtean.

Nafarroako mendebaldeko lurraldeak konkistatu ondoren, Gaztelako Alfontso VIII.a erregeak foruak berresteko ahalegina egin zuen. Konkistatutako jendea bereganatzea zuen helburu, jendea kontra agertzea saihesteko: “concedo ‘in regno meo’ et confirmo, lo que el Rey de Navarra os dio y concedió ‘in regno suo’”. Jendea



ZABALATE gaztelua eta Portilla herria

© Ruben Argote

engainatu nahi izan zuen, konkista gogorraren oroimena arintzeko. Hipokrisiaren esparrua mugagabea da: porrot militarra eta lurraldea borondatez ematea gauza bera al dira? Estrategia hori erabili izan dute harrez geroztik euskaldunei askatasunak kendu zaizkien bakoitzean. 1512. urtean Nafarroa penintsularreko gainerako lurraldeak konkistatu zituztenean eta Fernando Katolikoa erregeak (“Faltsua” ezizena jarri zioten) konkistatutako lurretan ere gauza bera egin zuten. 1839. urtean lehenengo karlistaldian ere gauza bera gertatu zen, gerra horretan Euskal Herriko nortasun berezia defendatu nahi izan baitzuten euskaldunek. Foruak errespetatuko zituztela esan zuten orduan ere, baina Espainiako “monarkiaren batasun konstituzionala kaltetu gabe”, jakina. Gaur egungo konstituzioak eskubide historikoak aipatzen ditu, baina batasun espainiarraren barnean betiere. Konstituzio hori ez da inoiz onartu Euskal Herrian.

Nafarroako Erresumaren konkistaren euskarri den bidegabekeria historialari ofizial horiek berek eskaintzen dizkiguten datuetan ere ageri da. Alfontso VIII.a erregeak, lapurtutako lurak beren jatorrizko riagusiei itzuliko zizkiela idatzi duen testamentuan: “prometo, si Dios me diere salud, restituir al rey de Navarra todo lo que tengo (...) porque sé que todos los lugares reseñados deben ser del Reino de Navarra y pertenecer a él”. Osasuna berreskuratu zuen, baina ez zuen agindutakoa bete. Antzeko zerbait gertatuko zitzaion Karlos V.a erregeari, 1554. urteko testamentuan honakoa idatzi baitzuen: “en lo que toca al Reino de Navarra (...) todavía para mayor seguridad de nuestra conciencia encargamos y mandamos al serenísimo príncipe Don Felipe (...) que haga mirar (...) y lo que así fuera hallado, determinado y declarado por justicia, se

cumpla con efecto, por manera que mi ánima sea declarada”. Felipe II.ak ez zuen aitaren agindua bete, beste zeregin asko zituela adieraziz: “por mis muchas y graves ocupaciones”; hala ere, honakoa idatzi zuen: “ordeno y mando al príncipe don Felipe mi hijo que él la haga (...) de manera que mi conciencia y la suya queden seguras, y que hallándose que deben ser en algo descargadas, lo sean”. Felipe III.ak ere ez zuen bere aitak agindutakoa bete eta testamentugileen batzorde batek aurkeztutako erabaki bat ontzat jo zuen; besteak beste, ondokoa zioen erabaki horrek: “que se quemen los papeles sueltos de sus majestades o pongan donde no aparezcan”. Errege horiek erakutsi zuten kontzientzia arazoa Platonek utzitako pentsamenduaren bidez azal dezakegu: “Bidegabé jokatzeko duenak ezingo du inoiz zoriontsu izan, zigorra jasotzen badu zoritxarrekoa izango baita eta zigorrak jasotzen ez badu are zoritxarrekoagoa izango baita. Bidegabekeriak egitea horiek jasatea baino okerragoa da eta, beraz, kaltegarriagoa. Bidegabekeriak arimari eragiten dioenez, gaitzik handiena da eta, beraz, zigorraren bidez horretatik libre gelditzea onuragarria izango da, baina zigorrak betetzen ez bada, zoritxarra erabatekoa izango da”.

Datu historiko labur hauen bidez gure begiek orain arte existitzen ez zena ikusteko aukera izan dutela jabetuko gara orain. Erresistentziaren euskarria eta askapenaren bermea nazioa dela ikusi dugu eta instituzioak ondorioa baino ez dira, horren ikuspegi bat. Egia ezagututa eta justiziaren alde apustu eginez laster Shakespeare idazle ingelesak idatzita utzi ziguna betekoa da: “Egunen batean Nafarroak mundua harrituko du”.

© koldo ortiz de ginea & Laia alidzkaria & geu alidzkaria

itzulpenera: aztiri



Geu Elkartek eskainita estreinatu zuen azaroan Javi Alonso gasteiztarrek Aldabe gizarte etxean bere azken poesia errezitaldia. Bertaratu zen jendeak euskara eta portugesearen melodia goxoa entzun ahal izan zuen rapsoda honen ahotik. Manuel Bandeira olerkari brasildarraren poesia landu du Javi Alonsok, Joseba Sarrionaindiak bildutako poema liburu bat abiapuntu izanik.

JAVI ALONSO, RAPSODA



arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com





Bere literaturarekiko zaletasunaz galdetzen zaionean Javik "Galerias Preciados-en errua dela" dio. "Bai, egia da. Ezkutuan izkina batean zeuden liburu batzuk lapurtu nituen behin eta poesiazkoak ziren haiek. Gaztetxo nintzen, Generación del 27, Austral ediciones... eta abar hasi nintzen irakurtzen. Ondoren, literaturari buruzko programak hasi nintzen egiten Hala Bedi Irratian, eta hori izan da orain arte nire zutabe nagusia", azaltzen du. Hamar urte inguru dira Javi Hala Bedin aritzen dela, eta sasoi honetan izen desberdinetako lau irratsaio egin ditu. Irakurtzen eta idazten duen gehiena bere irratsaioan pentsatzen egiten du, "La torre de marfil. El programa más aburrido de la radiodifusión", azkena, alegia. Horrela dio iragarkiak eta Javik azaltzen duenez, "nik jolasten dut jendeak poesiari buruz daukan irudi aspergarriarekin, baita barregarriarekin ere".

L iteraturarenganako sentitzen duen interesa dela eta, bere eskuetara Joseba Sarrionaindiak eginiko Manuel Bandeiraren liburuaren antologia heldu zen unetik Javiri "mundiala" iruditu zitzaion, eta euskarazko poemak eta portugesak uztartzea erabaki zuen. Javik aipatzen duenez, portugesa ez zuen kontrolatzen eta horregatik hainbat liburu hartu eta fonetika eta gramatika lantzen hasi zen. Sei hilabete eman ditu Gasteizkoak "Manuel Bandeira & Joseba Sarrionaindia" errezitaldia prestatzen, brasildarrez ahoskatzea izan duela poetak trabarik handiena. "Izan ere, portugesa eta brasildarra hizkuntza bera izan arren, oso ezberdinak dira ahoskeran, hau da, Espainiako gaztelera eta Argentinakoa bezain ezberdinak dira -dio Alonsok-. Hori dela eta, gramatika eta fonetikako liburuak hartu eta hizkuntza kontrolatzen zuen lagun bati esker aurrera egin nuen".

Javik urteak daramatza Hala Bedi irratian literaturari buruzko irratsaioa egiten. Rapsoda Gasteizen eta Araban aritu izan da eta bere aburuz poesiak gero eta zaletu gehiago ditu. "Bestela liburutegira joan eta poesia-liburu arraroenean begiratuta ere, konturatuko zara bizpahiru pertsonak alokatu dutela, eta hilabete besterik ez daramala erosi zutenetik", ziurtatzen du.



"Nik beti idatzi dut poesia niretzat, beste era batez esan ez dezakedana esateko modua delako", aitortzen du Alonsok. "Baina gezurra litzateke niretzat bakarrik egiten dudala esatea. Izan ere, jendeak irakurtzea eta entzutea gustatzen baitzait". Gasteiztarak, argitaratu ez baditu ere, bi liburu ditu idatzia eta poesiazko hirugarren bat bukatzen ari da. Ardatz nagusiari dagokionez, bizitzaz mintzatzen da poeta. "Betiko galderak erantzuten saiatzen naiz, nor garen, zer demontre egiten dugun hemen, eta gero, eguneroko bizimoduan sortzen diren zalantzak eta gertaerak".



MARIARI GUTUNA

Karachi uztea erabaki dudanean bertan. Bakardadea behar dut, paraje handiak. Hiri itzelen bidaia daramadala ohartu naiz: Atenas, Istanbul, eta orain Karachi. Hain lohia eta zalapartatsua den hiri honek behar hori azalarazi dit azkenik.

Orain hasten da, benetan, nire bidaia: jende hauen aurpegi ilunak, beren jantziak, janariak, jarrerak... ezezagunak zaizkit.

"Bi kontinenteren gainean zubi bat inurriak bere porlanean;
Ura Bosforo urdin geldoaren alfonbratzat;
Itsaso Beltzaren ondoan jada paratutako eguzkia;
Ilargi, ez zaitez atera gaur, bakarrik, ortzira:
Eta hondoan, Urrezko adarra, loak hartuta
ISTANBUL".

Emeki-emeki bere herriaren sakonenean murgildu nahi dut, bere paisaje gizatiarra ezagutu nahi dut, eta horretarako hiriak ez dira erakoena, hauek beren biztanleen islada beti izango diren arren.

Horrenbese jende artean ez nago gaizki, hau ere bada Pakistan, baina jada autobus koloreanitzen klaxon eta sirenek, bertako kobratzaileen garrasi eta kolpeek, azoketatik ateratzen den musikak, kontaezinezko motogurdien petardeoak... belarriek txistu jotzea eragin didate... eta birikiek ere 'nahikoa da!' diote.

"Denboran jauzi egiten dut. Hotel itogarri honen hormetako ARRABIOaren moduan. Goizeko laurak joak dira. Loak hartu ezinik nago.

Haizagailuak ere ez nau lasaitzen.

Nahiago dut dutxa bat hartzea eta esnatuta mantentzea, norbaitekin mintzatu behar dut eta orduak aurrera egin dezatela, eta eguna etor dadila...

Hoteleko atea itxita daude; zaindaria lo dago.

Bukaerarik ez duen gutun baten bigarren zatia; horman horizontalki eusten den bigarren arrabioa.

Erretiluaren gainean katiluak buruz behera
Teontziak beste batean

Labezomorro txertatuak;
haizagailua
eltxo-sarea haizetara

I can't sleep!!!!"

Hemen bukatzen da trenbidea. Arroz-soro, bananondo eta azukre-kanaberazko paraje batetik barrena heldu naiz. Lertxun zuriek, milaka koloretako txoriek, zorte oneko papagaiek gainetik hegan egiten dute, iragaiten dabilela dioen trenaren oihuetatik ihesi. Belar itsaso batean murgildutako emakumeek txanbilak daramatzate buru gainean, urre-koloreko oihalak, gorriak, laranja-ak.

Ulertzen hasia naiz irensten nauten begi beltz horiek inguratzen nauten aurpegi bitxi hauek nireak ukitzen dituzten esku horiek
Hantxe hasten da basamortua..... THAR.



ARROZESNE ETA INTXAUR TARTATXOA ANDERE-MAHATSEN SALTSAN

4 LAGUNENTZAKO OSAGAIK:

• Arroz tartatxoa:

Tarta hau molde laukizuzen handi batean (20 x 30 cm) prestatzen da eta gero zati laukizuzen txikietan zatitzen da (edo nahi dugun forma emanaz).

Lehenik eta behin bizkotxoak oinarri fin bat jarri eta gainean intxaur zatiak isuriko ditugu. Horren gainean arroznesne moussea jarriko dugu eta beste bizkotxo zati batekin estaliko dugu; amaitzeko, limoizko krema fina zabalduko dugu gainean. Izoztu egingo dugu, gero ondo zatitu ahal izateko.

• Arroznesne moussea:

Arroznesne	1 l
Esne gaina	750 g
Azukrea	75 g
Gelatina (10)	20 g

Arroznesne epeldu (lodituta baldin badago hobeto) eta gelatina bota. Gero azukrea eta erdi harrotutako esne gaina nahastu.



• Limoizko krema:

Limoizko zukua	215 g. - % 21,5
Arrautzak (3)	210 g. - % 21
Gorringoak (6)	160 g. - % 16
Azukrea	215 g. - % 21,5
Gurina	200 g. - % 20
Limoizko birrindura	limoizko erdia

Material aldagaitzeko ontzi batean limoizko zukua, azukrea, arrautzak eta limoizko birrindura jarriko ditugu. Hau da, dena gurina izan ezik. Irabiagailu batekin dena

PRESTAKUNTZA

Tarta plater batera aterako dugu eta andere-mahatsarekin egindako saltsa zerrenda batzuekin (100 g andere-mahats gorri eta 50 g azukre egosi eta birrindu) osatuko dugu. Andere-mahatsen adar batekin apaindu.

nahastuko dugu, krema homogeneoa lortu arte. Egosten jarriko dugu gero, baina etengabe mugituko dugu, hondoan eta hormetan ez itsasteko.

Minutu batez egosi ondoren, epeltzen utziko dugu eta gurin zatiak nahastuko dizkiogu, irabiagailuarekin eraginez guztiz nahastu arte. Ontzi batean jarriko dugu eta estali egingo dugu edo barketa garbi batean zabalduko dugu eta hozkailuan gordeko dugu, erabili arte.

Itzulpena: arzi

Aurpegiko ile		Nekezak	Nagusia	Emagalduta	Pl., kolore militarra
Bizkaiko herria		Musulmanak	Garen hauek	Diru truk eskuratu	
Ipar. ausarta			Sodioa		
DEITURA					
Katez lotu	Barre eragileak				
Siziliako mafia	IZENA				
			Artsenikoa	Iodoa	
			Hats	Kalitate ezaugarri	
Jatorri atzizkia		Esku itxia			
Eltzea		Kontsonantea			
			Jainko egiptoarra	Nor atzizkia	
			Euskal sindikatua	Garai, aldi	
Ate, hitz elkarketan		Minus		Abertzaleen Batasuna	A birritan
Hunoen errege		Atx!		Urtearen erdian	
			Belardía		
			Potasioa		
United Nations	Euskal eskola				

Hitz Gezidunak (LUMA)

*IRUDIA:

abenduko protagonista, arabako euskararen historiaren beste ordezkarietako bat, Urizaharran kokatzen da, darabilen euskaragatik -Araba ekialdekoa- eta bere abizenaren atxikitzeagatik. Ez dakigu noiz jaio eta hil zen, baina 1610ean Iruñean antolatu Poesia Lehiaketan 1. saria irabazi zuen idatzi erromantzearekin: "Romance al Santissimo Sacramento en Bascuence".
Iturria: Arabako Euskal Hotsak liburua.

Soluzioa: 33. orrialdean

• Abenduaren 17a, asteazkena

Patxi Zubizarreta,

Barrikadak, Alberdania 2003.

idazlea bertan izango da.

• Urtarrilaren 28a, asteazkena

Patricia Highsmith, Ripley trebea, Igela 1999.

• Otsailaren 26a, asteazkena

Rikardo Arregi, Kartografia, Alberdania 1998.

• Martxoaren 31a, asteazkena

Isaac Bashevis Singer, Zortzi kontakizun, Elkar-Alberdania 2002.

• Apirilaren 21a, asteazkena

Jokin Muñoz, Joan zaretenean, Alberdania 1997.

• Maiatzaren 26a, asteazkena

Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea, Pamiela 2003.

• Ekainaren 30a, asteazkena

Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu, Alberdania 1995.

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO 20.00ETAN



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Geu elkartearen ekimenez

LIBURUAK ESKURAGAI GEU ELKARTEAN

Elkarteak, ikasturte honetan Irakurle Klubak mintzagai izango dituen liburuen ale bana du, bazkideek alokairuan hartu nahi izanez gero.

Nola? Elkartera deituta (945 222 153 - arratsalde, Josune) edo eskaera e-mailez (geuelkarte@grn.es) eginez.

Informazio gehiagorako, Geu elkarte koordina-tzailearekin harremanetan jarri, arratsalde (Josune).

IRAKURLE KLUBA & ZAPATENEO

Abendutik aurrera, Irakurle Klubeko liburuak ZAPateneo Kultur Elkarte

ere izango dituzue. Gainera, hileko liburua prezio berezian eskuratu ahalko da.

Zapa Kalea, 95, behea. Asteartetik ostiralera, 18:30etatik 21:00etara eta

Larunbatetan, 11:30etatik 13:30etara. Tfnoa. 945149379. e-maila: zapateneo@euskalerrria.org

MINTZALAGUNA GEUekin

Ostegunero 'Falerina', Montehermosoko kafetegian, 7etatik aurrera.

Lehenago elkartera deitu beharra dago izena emateko (945222153, arratsalde. Josune).

GEU elkarte & Gauekoak. IKUSKIZUNA. ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Mikel Valverderen egitasmo berria

Abenduak 11, Principal antzokian, 20.30etan

GEU ELKARTERA DEITUTA SARRERAK ERRESERBATU DAITEZKE, ABENDUAREN 5a baino lehen (ikus. 7. orr)

KULTUR ERROTA & GEU

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria

IRUDIPUINAK

marrazki kontatuak, kontu marraztuak, ipuinirudiak, marrazioak

IXABEL AGIRRESAROBÉ + MATTINen eskutik

ABENDUAK 30
Parral-en, 20.30etan



geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

Abenduaren 14an

**SAIBI (946 m.),
ERRIALTABASO
(1018 m.)**

ARDURADUNA: JOSEBA
(945200973)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
goizeko 9.00ETAN

liburua

MANILA KONEXIOA


JON ARRETXE
elkar

Ibon Artabe eta bere laguntzaile Etxebe ez dira Sherlock Holmes eta Watson doktorea, antzekoagoak dituzte zinema eta literaturaren historiako dtektiberik xelebreenak: Clouseau inspektorea, Cruchot brigadierra, Torrente polizia ohia, Gadget, Maxwell Smart super-agentea.

Desagerketa misteriotso bat argitu behar dute Artabek eta Etxebek, eta hiriko zoko-mokoak arakutzen ibiliko dira horretarako. Arraza, lanbide eta jite guztietako jendea topatuko dute bilaketa ero horretan, zein baino zein bitxiagoak, baina gure lagunek tinko eutsiko diote beti bere langintzari, nahiz eta begien aurrekoari ere ez antzik eman.

Gasteizen giroturiko eleberri beltz batekin datorkigu Jon Arretxe, lehendik ere bai bere bidaia-kronikekin bai gazteen bizimoduari buruzko kontakizunekin arakasta itzela lortutako egilea. Betiko dohainak aurkituko dizkiogu hemen ere Arretxeri: idazkera argi eta zuzena, erritmo bizia, umore etengabea.

Horiez gainera, pertsonaia bakoitzari dagozkion hizkera eta ezaugarriak sortzeko abilezia eta argumentuaren hari guztiak maisuki josteko trebezia aitortu behar.



ARGI IBILI!

ALE BAT DUGU OPARITZEKO,
BULEGORA DEITZEN DUEN LEHEN
HARPIDEDUNARENTZAT

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

• Ordutegi guztiak

Amaia. 635742429

• Goizez

Ilune. 945010322

• Arratsaldez

Patxi. 652743205

• Gauez

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

• Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

Miryam. 656761588

denbora-pasaren soluzioa (31. orr.)

	J	B	J	Z	J	U	J	P	J
	D	I	M	A	J	G	E	U	K
	J	Z	A	I	N	A	R	T	A
J	K	J	P	A	I	L	A	Z	O
C	A	M	O	R	R	A	J	A	S
J	T	A	R	J	U	K	A	B	I
P	E	R	T	Z	A	J	R	A	J
J	A	T	A	J	K	E	N	J	A
A	T	I	L	A	J	L	A	R	R
J	U	N	J	I	K	A	S	T	O


*Martin Portal



ARTE ETA LANBIDE
ESKOLA

MIKEL LPZ. DE LUZURIAGA

(Osabetezkoak)





Aisialdia

Adintsuak

Gazteak

bizi-kalitatea

Osasuna eta prebentzioa

Kirola

Kultura eskaintza



Bekak

Talde baztertuak

EQUAL

Lanbide heziketa eta enplegua

laneratzea

Gazteen artean enpresa sortzeko kultura sustatzea



Kooperazioa

Elbarritasunak

Talde baztertuak

gizartekotzea



Historia ondarea (berreskuratzea)

Kultura ondarea: hizkuntza, historia, geografia, kirola

Natura ondarea (ingurumena)

garapen iraungarria

Lurraldea sustatzea

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza